

Martxoak 30, etxeko langileen nazioarteko eguna.

Argi ikusi dugu denok. Zaintzak dira gainerako guztia gelditzen den bitartean gelditu ezin izan den hori.

Bizitzari erantzunkizun kolektiboaz heltzeko apustua da gurea. Zaintzak premia, erantzukizuna eta eskubide kolektiboa dira. Ez dute inoiz merkantzia edo negozio izan behar, inoiz ez sakrifizioa eta ezta "hori ez doa nirekin" ere.

Gaur egungo zaintza lanen antolaketa bidegabea salatzen dugu, eta era berean, zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu eta duindutzeko borrokan diardugu. Batak bestea dakar. Ezin dugu jarraitu gutxi batzuen zaintza eskubidea bermatzen, zaintzaileen eskubide sozial eta politikoen bizkar; hots, kalitatezko zaintza eman eta jasotzeko baldintza duinetan egon behar dute langileek.

Batzuen zaintza besteen eskubideen gain eraikia ez den errealitate bat aldarrikatzen dugu. Zenbat eta funtsezkoagoak izan lanak, orduan eta merkatu-balio txikiagoa du. Eta, zenbat eta merkatu-balio txikiagoa izan, orduan eta emakumezko langile, migratu eta arrazializatu gehiago daude.

Zaintza lanek bizitza sozialeko eremu guztietan betetzen duten funtzioa aitortu behar dugu. Lehendabizi, lanen izaera, dimentsioak eta tokian toki betetzen dituzten funtzioak ikustarazi behar dira. Gizartean, orohar, eta, zehazki, ekonomian egiten duten ekarpena kontuan hartu behar da.

Zaintzen antolaketa aldatzea dena aldatzea da: aldatzea da, egunez egun harreman arrazistak, klasistak eta heteropatriarkalak berreraikitzen ditugulako.

Euskal zaintza sistema publiko-komunitario baten aldeko apustua egiten dugu. Sistema horrek, mendekotasun-egoeretan zaintzak jasotzeko eskubidea errealitate bihurtzea lortu behar du. Zaintza-lan guztiak duindu eta baloratu behar ditu. Eta zaintzak negozio pribatuko nitxo izateari uztea bermatu behar du. Norabide horretan, erabakiak hartu behar dira eta politika publikoak diseinatu subjektu instituzional, politiko, sozial eta ekonomikoekin.